


Aretxabaleta,
1992ko urriak 8

Aretxagazeta



Zorionak!

- *Atxabaltartua:*
Manolo Davila.
- *Xabier Lazpiur.*
- *Afizioak:*
Atxabaltako
sagardaua.

15 zka.



Udazkena heldu da, egunak motzagoak dira. Udan umeen algarek eta jolasek herriko kaleak bete dituzte.

Domeketan, batzuk

Gaurko umeentzako zinera joatea, hitz egiteko, zigarroak erretzeko eta pipak etb jateko txoko bate-tara joatea da.

Zinera zertara?

gurasoekin hondartzara joan dira eta beste batzuk mendira, denek ondo pasa dituzte udako egun horiek. Orain berriz udazkena etorri zaigu eta berarekin eguraldi txarra. Orain ezin daiteke denbora osoa kalean pasatu eta horregatik ekintza batzuk antolatzen dira. Hauen artean urtero bezala zinema hasten da.

Atxabaltako Zaraia zinemak gero eta filme hobeak eskaintzen ditu, jende gehiago animatu dadin joaten. Ni urtero joan izan naiz, baina aurten nere bizimoduá zeharo aldatu da. Orain ama naiz eta egoera horretaz jabetuz,

gukegin dugun gizarte hau ikusita, nere alabei zer transmitituko diegan pentsatzen jardun dut. Hau dela eta, zineko egoerak asko arduratzen nau eta gurasoei euren umeekin zinera joan daitezela eskatzera ausartzen naiz. Horrela, gu helduok eredu bezela jarritz, zinean egoten den giro txarra aldatu dadin.

Gaurko umeentzako zinera joatea, hitz egiteko, zigarroak erretzeko edo eta pipak eta horrelako gauzak jateko txoko batera joatea da. Beharbada zaintzaileak poliziak bezela egoten ez direlako izango da edo bestela errespetu gutxi

erakutsi diegulako guk umei.

Gasteiz eta Arrasateko zinemetan ere egon izan naiz eta hau ez da han ikusten. Jendeak zinean zerbait jateko ohitura dauka, tradizionalak diren palomita bezala, baina ez ditu hondakinak lurrera botatzen eta ez du zinean erretzen ere. Ikustekoa da Atxabaltako zinea nola egoten den astelehenetan. Norbaitek sinesten ez badu, etor dadila ikustera. Dena den errudun bakarrak ez dira umeak, gu nagusiok ere bai, guregandik ikasi bait dute dakiten guztia.

Inma Miguel
Kultur
teknikaria.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-konsteilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretti Ayastuy **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guernes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Ze iruditu zaizkizu San Migelak?



Luis Corres
(Langilea)

Oso ondo egon dira, giro ona egon da eta datorren urtean ea hobeak izaten ditugun.

Egunez ondo egon da, nahiz eta ni asko ez ibili, baina gabez askoz hobeto.



Haritz Bedia
(Ikaslea)

Nahiko txarrak iruditu zaizkit, ez da ezer egon: ez dazezenik egon eta dantza bat bakarrik egon da.

Datorren urtean, buruhandiak, jokuak eta abar. egotea gura nuke eta baita "autos de txoek".



Nagore Rico
(Ikaslea)

Gauza gehiago egon daitezke, barrakak adibidez, beti berdinak izaten dira.

Nik gazteendako taberna bereziak ere eskatuko nituzke eta talde hobeak, trikiritak izan beharrean.



Marga Garmendia
(Langilea)

Zapatuan oso giro ona egon zen kalean, domekan eguraldiak ez zuen hainbeste lagundu. Egunez giroa izan zen, horretarako antolatuz zela, baina gabez beti egoten da gehiago.

Nik uste nuen erromeria ere izango zela, iazkoak bezalakoak, antzerki moduko bat eginez.

KARTAK

Haurren eguna

Urriaren 18an, domekan, urtero bezala Haurren Eguna izango da Aretxabaletan. Urtero egiten den moduan herri desberdinetako dantzari gazteak etorriko dira eguna pasatzera gure herrira. Goizean eta arratsaldean euren dantza saioak egingo dituzte.

Urtero gertatzen den moduan aurten ere dantzari hauek bazkaltzera atxabaltarron etxeetara joan daitezela gura da. Horretarako izen emateak betiko lekuetan egin beharko dira eta jendearen parte hartzea komenigarria eta beharrezkoa izango da, Haurren Egu-

na galdu ez dadin. Deno gustatzen zaigu beste herri batera joatean harrera ona izatea; beraz, guk ere berdin egin dezagun kasu honetan, ez ditzagun jai hori eta haur horiek alde batera utzi. Egun batean haur pare bat etxean hartzeak eta bazkaltzen izateak ez

dakar horrenbesteko lana.

Animatu zaitzete eta parte hartu ezazue herrian urtean behin egiten den herriko jai honetan, bestela galdu egingo da.

Antolatzaileak



Pasatu dira San Migelak

Aurtengo San Migelak ere agurtu ditugu datorren urterarte. Giro aparta egon da hasiera hasieratik, Mila Urbanarekin hasiera eman zitzaionetik. Ekintza horrek exito handia izan zuen eta irabazleak hauek izan genituen: Infantiletan, gizonetzkoetan Martin Davila eta emakumezkoetan, Amaia Ramos. Kadeteetan, gizonetzkoetan Aitor Galdos eta emakumezkoetan barriz, Leire Rodriguez. Gaberako Iturrigorri frontoia ere jendez bete zen pelota partiduak ikusteko, beste askok tabernetako giroa gurago

zuela eta, bertako giroaz gozatu zuten.

Zapatuan, eguraldi sargoriaz, Durana kalean txoznak ipintzen hasi ziren, nahiz eta hauek goiz hasi euren lanean, jendeak ez zuen urten eguardi alderarte. 12.30etatik aurrera baserritar jantzitako nahiko jende ikusten zen Durana kale osoan zehar; taloa, sagardoa eta gaztaia probatzeko asmoz.

2.30etarako plazako mahaiak gertu zeuden bazkari herrikoirako eta laster zegoen dena beteta. Bazkaltzeko babak, legatza eta postrea izan ziren eta

kafearekin batera sorpresatxo bat eman zuten. Arratsaldeko jokue-tan kuadrilek gogoz parte hartu zuten eta ikusleek nahiko barre egiteko aukera ere izan zuten, sokatira zela eta ez zela. Gero bertsolariei tokatu zitzaizen txanda eta oso saio polita entzun ahal izan zen.

Gabeko giroa zapatuan ere oso ona izan zen, jende asko eta martxa handia zegoen, bai tabernetan eta baita Maixa eta Itziarrekin dantzan ere. Goizeko bostetan txokolate eta salda beroa hartzeko jendea prest zegoen eta bai gustora hartu gainera, ez zen ezer sobratu! Nikaxiren lana ez zen alperrik izan.

Zapatuan jubilatuek ere primeran pasetako aukera izan zuten: meza entzun, Kirol Etxean bazkaldu eta gero lagunartean egon edo arratsalde osoan dantzan egin zuten.

Domeka izan genuen egunik txarrena, oso eguraldi eskasarekin argitu zuen eta ondorioz goizeko antzerkia aterkinaren babesean ikusi beharra izan zen. Arratsaldean barriz, txarangaren kalejira suspenditu egin zen. Hala ere, egun triste horretan U.D.Ako errejionaleko ekiptoak izandako erresultatuak zerbait alaitu gintuen.

Aurtengo San Migelel egun tristeak eman zion bukaera.



I O S U
URDAITEGIA
MITARTE, 1 eta
GORBEA, 8

 **ZUBIA**
Zapata-denda
Mitarte, 14
tnoa: 79 16 00
ARETXABALETA

IMANOL ALTUBE
ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK
Durana, 36
Tfnoa: 79 10 60
ARETXABALETA

EXPRESS
AKEITEGIA
Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Emakumeak ere ikastaroetan

Irailaren 7an, etxeko laguntzaileendako ikastaroa hasi zen Kultur Etxeko lokaletan. Ikastaro hau Saiolan I.C.T.Ekoen bitartez eta Atxabalta eta Eskoriatzako Udalen bitartez eman da.

Laguntzaile horien zerbitzua Udalak dauka eta ikastaro horretan dabilzanak zerbitzu horretakoak dira. Zerbitzu horren bitartez 3. adinekoei eta gaixoei laguntza eskaintzen zaie, bai etxeko lanak egin edo eta eurekin egon, bakarrik egon ez daitezten.

Ikastaroaren helburua 3. adinekoei eta gaixoen

psikologia, osasuna, elikadura eta garbitasunari buruz zerbitzu gehiago jakitea da. Horrela ikastaroan ikasten dabilzanak euren ezagupena gehiago sakondu eta gero teoria hori praktikara hobeto eramango dute. Emakume horiek euren lana beste lan bat bezela ikustea izango da beste helburuetako bat.

Ikastaroa 200 ordukoa da eta azaroaren 4erarte iraungo du. Ikastaroan 16 lagun dabilza, horietatik 10 Aretxabaletakoak dira eta beste 6ak Eskoriatzakoak.

Egunkariaren aldeko Batzordea

Aurten ere, eta urteroko ohiturari jarraituz, kanpaina barri bati ekiteko asmoa dauka EGUNKARIAK. Hiru dira berau antolatzen bultzatu dituzten arrazoiak: publikitate egiteko bide egokia izatea, jasaten dituzten erasoei aurre egiteko, finantzia bide aproposa izatea.

Lau izango dira kanpainaren ardatzak:

1- Hirurogeitamabi orrialdetako Urtebetetze Gehigarria.

2- Tren ibiltaria.

3- Euskal Tonbola: 100.000 sari banatuko dira.

4- Egunkari Jaia.

Hori denori aurrera eramateko Euskal Herriko herri guztietan Egunkariaren Aldeko Batzordeak eratuko dira. Aretxabaletakoa martxan jartzeko datorren martizenean, hilak 13, arratsaldeko 7etan batzarra izango da BEINKEren lokalean. Euskaldunon Egunkariari laguntzeko prest zaudetenenok, animatu zaitezte.

• Kirol Etxeko erabiltzaileen-dako oharra: Norbaitek baja eman gura badu 1993. urterako edo aldaketaren bat izan badu bere datu pertsonaletan, Kirol Etxean azaldu daiteke urriaren Setik 31rarte.

• Datorren domekan, urriaren 11n, Biana-n Nafarroa Oinez ospatuko da. Beinkek autobusa antolatu du bertara joateko. Autobusak goizeko 8.45etan urtengo du Azbetik. Prezioa 750 ptakoa izango da.

• Aurtengo Hara-tuzteetako erretiatuen erakusketa izango da Kixkor tabernan, eguakotxetik aurrera.

MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1.A
fnoa: 79 71 55



**Aretxabaletako
industrialdea**

Basabe poligonoa B-o
Tfnoa: 79 62 80

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1

Tfnoa: 77 13 79

ARETXABALETA

Sagardaua zelan egiten den jakiteko, Orora joan eta han Joxe Martin Larrinagarekin izan gara. Bertan lanean, Jose Martin, Jose Luis Madinabeitia eta Orokro Lasagabastertararakurkitu ditugu. Denen artean sagardoaren prozesua eta erabiltzen duten materialaren mekanismoa erakutsi dizkigute.

Hauek urteak daramatzate sagardoaren lan horretan.



• Ikusten duzu jarraipenik?

• Ez dut uste hemen inork jarraituko duenik. Honek lan asko dauka eta sagardaua egiteko lehenengo sagarrak landu behar dira eta gero jaso. Oraingo gazteek ez dute sagarrak jasoten denboran pasetan.

Gainera orain beste etxe batzuetan beste era bateko makinaria erabiltzen da. Guk daukagun makinaria oso zaharra da. Prentsak adibidez 35 bat urte izango ditu, Maristetatik ekarritakoa da, lehenagoko Maristetatik. Errota berriz Errota Barritik ekarria da eta auzokideen artean zeukaten.

• Erabiltzen duzuen barrikak zenbat litrotakoak dira?

• Haundiena 600 bat litrokoa da eta besteak 250ekoak.

• Zenbat litro eginen duzue urtean?

Normalean 1000 litro. Gehien egin genuen urtean 10.000 izan ziren, orduan beste baserri batzuetatik sagarrak ekarri ziren eta gero sagardaua eginda eman genien.

• Kostoso da?

• Nahiko lan dauka, batez ere prentsa mugitzen. Horretarako sei bat ordu behar dira eta indar handia.

Gero beste lan mota batzuk egin behar dira: botailak garbitzen, graduak ondo neurtu eta beste hainbat, baina ez dira horren nekezak.

Atxabaltako sagardaua

• Zein izan zen zure maixua?

• Pedro Lizarralde "Basabe" eta Joakin Osinaga ziren hemengo beteranoak eta nik eurekin ikasi nuen.

• Zein sagar mota erabiltzen da sagardaurak?

• Guk hemengo inguruko sagarrak erabiltzen ditugu. Sagarrak zenbat eta latzagoak eta mingotzagoak askoz hobeto. Goldenak ez du balio sagardaua egiteko, oso txarra da.

• Zein da prozesua?

• Lehenengo sagarra matxakatu egiten da eta gero hurrengo egunerarte erreposuan uzten da.

Hurrengo egunean gainean tablak jarri eta prentsa egur gaineraino heltzen denean, eragiten

hasten gara. Prentsari, ia 2 metroko palankarekin emango zaio buelta, lehenengo batek gero bik eta azkenean lauren artean.

Topera heltzen denean txorrua urteten hasten da eta lehenengo prentsaldia bukatuta dago. Bigarren prentsal-di bat ere egiten da ur piska bat botata gainera. Bigarren hau eskastxoagoa da.

Zumo guztia ateratakoan barriketan sartzen da eta hor fermentetan utzi zikin dena botatz.

Irikitten gelditzen denean, barrika ondo tapatu behar da bestela errebetetako arriskua dauka.

Tapatu eta hilabete bi inguru egongo da eta orduan enkortxatu egi-

ten da. Enkortxetako azukre gradu justuak izan behar ditu: 0,8 edo 1.

Enkortxatzea ilbeheran egiten da, baina aurretik aparatu batekin graduak ondo neurtzen dira eta altu badago hurrengo ilbeherararte itxoin.

Eguraldi freskoa hobe da sagardauarendako eta hego haizea oso txarra da.

Hasieran ataraten den zumoak 6-7 gradu izaten ditu eta gero fermentatuz gradu 1era heltzen da.

• Zein da sekreturik haundiena?

• Ez dakit sekretorik daukan, baina urtero sagardaua egin eta urtero desberdinak urteten du, nahiz eta barrika berdinetan eta era berdinean egin.

Namaste, Felix eta Alberto


"Gure planteamentuekin, oxigeno barik, bi lagun... oso gatxa da, Everesten badakizu %90eko posibilidadadeak dituzula ez igoteko. Apustua egitea da". Horixe esan zioten Aretxagazetari martxoan. Irailan gailurrean zeuden.

Ez dago barrero esan beharrik oxigeno barik igo zutela, Alberto hori egin duen gazteena dela munduan, Martin Zabalek orain dela 12 urte igo zuenetik euskaldunikezzuela igo. Hori herri osoak badaki. Orain jendeak gura duena da herrian harrera on bat egin eta

zorionak emotea. Ea posible den hau egitea inor larregi agobiatu barik. Euren faxetan bidaltzen ziguten agur Nepaltarrarekin agurtzen ditugu Aretxagazetatik: Namaste!

Informazio okerrik ez badugu, igaz baino sanoago etorriko dira aurten. Gailurra egin da eta sano. Ezin da gehiago eskatu.

Itxura denez, datoren zapatuan, urriaren 10ean iritsiko dira Felix, Alberto eta Jose Ramon (ez da ahaztu behar Almeneko irakasle eskoriatzar honek bere lan isilarekin izan duen garrantzia). Hirurei harrera beroa egingo diegu.



Espedizioaren xehetasun batzuk

- Saninaziotan urten zuten herritik eta abuztuaren 26an behe kanpamentua jarri zuten.
- 2. kanpamentura heltzean material batzuk falta zituzten eta atzeko espedizio batekin negoziatu behar izan zuten.
- Eguraldi txarra pasatuta gero irailaren 14ean jarri zuten 3. kanpamentua.
- Azken igoera 4 egunetan egin zuten. 2 eta 3 kanpamentuetan lo egin zuten. Igoten zebiltzala 4. kanpamentua montatu zuten eta bertan lo egin.
- Irailak 25ean 14 orduko igoera eginda gero, gailurra lortu zuten 3.10ean. Alberto eta Felixekin nafar bi egon ziren gailurrean, eurak baino lehentxoago ailegatuta, oxigenoz.
- Berandu samar zenez nafarrek "bibak" (kanpoan lo) egitea erabaki zuten. Bi atxabaltarrok jeitea erabaki zuten eta lortu. Igaz Makalun konjelazioekin eskarmentua izan zuten, eta aurten azkar jeistearekin hori ebitatu zuten. Bi naparrek barriz, konjelazioak dituzte.
- Jeitsiera erdi ilunetan egin zuten eta Albertok belaunean kolpe bat hartu zuen, baina ez da larria.
- Aurreko astean dena batu dute eta dena normal joan bada, atzo, urriak 4ean iritsiko ziren Kathmandura.
- Zapatuan, urriaren 10ean eguerdi aldera helduko dira Sondikako aireportura. Aretxabaletan harrera izango dute.

Iñurrategi anaiek Everest gailurra lortu zutela enteratu ginean Murrukixora jo genuen, euren ikuspegiak kontatu ziezaguten. Bertan Alberto Etxebarria, Murrukixoko ordezkariarekin izan ginen berbetan. Albertok espedizioaren prosezua kontatu zigun hasieratik.



"Jendea oso ondo portatu da, asko lagundu du."

• **Noiz enteratu zineten Everestera joateko asmoa zutela?**

• Igazko Gabonetan. Himalayara joango zirena-
ren susmoa bazegoen, baina ez genuen uste Everestera joango zirenik, Lhotsera baizik. Eurek aurretik zuten asmo hori eta baita oxijeno barik egitekoarena ere,

• **Zer zen espedizioaren prosezuan gauzarik gaxena?**

• Diruaren asuntza da nire ustez zailena. Espo-
sor haundiak espero genituen eta azkenean espo-
sor txikiak bakarrik lortu genituen. Hasiera batean

esponsor bat zegoen, baina gero atzera egin zuten, baina sudaderak kalean zeuden eta aurrera jarraitu beharra zegoen.

• **Espedizioaren prosezua gogorra da?**

• Lan handia dauka. Sudaderen asuntza eurak 3rak ibili dira. 2000 bat atera ziren eta 1500 inguru saldu, gure ustetan ondo saldu dira.

• **Ze diru sarrera egon dira?**

• Alde batetik esponsor txikiak eta sudaderak eta bestetik Udala ere oso ondo portatu da. Federazioak eta Diputazioak ere emango dituzte subentzioak baina

oraindik jasoteko daude.

• **Zelan enteratu zinen igo zutela?**

• Lanean nengoela Jose Ramonen emaztea etorri zitzaidan igo zutela esanez eta momentu horretan uleak puntan jarri zitzaizkidan. Momentu horretan aurretik izandako arazo guztiak atzean uzten dira.

• **Zelan bizi izan dituzue igo aurreko egunak?**

• Normalean igo aurreko astean urduritasun handia pasetan da, baina aurten ez da aste hori heldu. Aurten oso aguro igo dute, 4. kanpamentua baino lehenago lortu dutelako gailurra.

• **Hasieratik zuten 3rak joateko asmoa?**

• Bai, Jose Ramonekin hasieratik kontaktzen zuten. Jose Ramonek aurreko espediziotan laguntza handia eskaini du eta beheko kanpamentuan egoteko egokia zen. Jose Ramonen laguntza barik ez zuten lortuko.

• **Anekdotarik izan duzue espedizioaren prosezuan?**


• Sudaderak atara ziren eta esponsor bat egongo zelakoan ez ziren kalera atara, esponsor honen aldatu gura izango zitu-
tuelakotan. Azkenean ez zen esponsorrik izan eta astebate beranduago atara ziren kalera.

• **Zelakoa izan da jendearen jarrera?**

• Oso ona, asko lagundu du eta ondo portatu da.

Normalean aurreko astea urduritasunez pasatzen dugu. baina aurten oso bizkor igo dutenez ez da aste hori heldu.

Euskal Herriko Mendi Federazioaren eritzia ere jakin gura genuen eta bertara jo genuen. Han Pako Iriondorekin izan ginen eta bere poz-a agertu zigun. Notizia oso pozik hartu zuela esan zigun, bi anaiok ikasi gura duten mutilak direlako eta denek asko maite dutelako.



"Askok poztu nau notiziak"

• **Noiz ezagutu zenuen lñurrategi anaiak?**

• Behin bi anaiak etorri ziren Pumorira zoazela esanez. Nik orduan zera pentsatu nuen: "bi ume moko hauek Pumorira?". Nik erresponsabilitate itzela nuen baimena ematean, orduan Anapurna 4ko baimena lortu nien eta handik astebetara hemen datoz berriro, Anapurna oso gogorra zela esanez. Orduan Pumorirako permisoa lortu nien eta egin zuten, gero igaz Makalun eta aurtzen Everest. Hasieran adar jotze bat zela uste nuen.

• **Zelan hartu duzu notizia?**

• Oso pozik, eurak diren modukoak direlako eta ikasteko interes handia jarten dutelako. Bi anaiok sasoi onean joan dira bai fisikoki eta baita aklimatazio aldetik ere. Niretako

Everestera joan bai, baina gero etxera bueltatu ere bai. Gainera Felixek asko arriesgatu du, oraindik ez zeukan hanka behar den moduan gogortuta eta. Atxabaltako herriarendako kirol mailan izan den ekin-tzarik garrantzitsuena izan da hau.

• **Ze berezitasun daukate Felix eta Albertok?**

• Hauek izotzetan ibiltzeko gertatuta daude. Himalayan ibiltzeko indarra behar da eta hauei asko gustatzen zaie. Beti ez da posible gura den lekura joatea, Himalayara ondo preparatuta joan behar da. Eguraldia oso faktore garrantzitsua da eta hauek ondo joan direnez ondo aprobetxatu duta denbora. Gutxien espero zenean egin dute gailurra. Himalayan aste bete izaten da

gailurra egiteko eta aste horretan eguraldiak ez badu laguntzen ez dago zer eginik.

• **Zer esango zenuke oxijeno barik joateari buruz?**

• Oxijenoarekin dabilena momentu batean oxijeno barik geratzen bada arnas barik geratuko da. Bestalde oxijenoak pisua dauka eta oso garestia da, baina oxijeno barik joateko preparatuta egon behar da. Hauek igaz Makalun hartu zuten esperientzia handia.

• **Lagun gutxi joatearena zela ikusten duzu?**

• Ekonomikoagoa da. Lagun asko joatean posibilitate gehiago dago, baina euren artean ondo konpontzea ere zailagoa da. Hauek Jose Ramonekin oso ondo konpontzen dira eta hori gauza inportantea da, gainera Jose Ramonen laguntza ezinbestekoa izan da.

• **Ze kontseju eman- go zenieke orain?**

• Orain alde batetik bestera ibiliko dituzte. Baina orain lasai ibili behar dute, euren onera etorri behar dute eta. Deskantzua eta errekupeazioa behar dute.

• **Atxabaltarrondako badaukazu sorpresatxo- ren bat, ezta?**

• Bai, abenduaren 11n "Pirenaica sariak" eman- go dira eta nire interesa Atxabaltan egitea da. Sari hauek aprobetxatuz, Himalayan egon diren mendizale guztiei omenaldia

"Atxabaltako herriarendako kirol mailan izan den ekin-tzarik inportantean da hau"

Manolo Davila

Extremaduratik Atxabaltara

- **Non jaio zinen?**
- Quintana de la Serenan, Badajozeko probintzian.

- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

- 1961ean, 14 urterekin.

- **Ze arrazoiengatik etorri zinen Atxabaltara?**

- Han baserri txiki bat geneukan eta orduan lanik ez zegoenean aita hona etortzen zen lanera eta gero garia jasotzeko denboran bertara bueltatzen zen. Azkenean hemen lan egiteko aukera gehiago zegoela eta denok etortzea pentsatu genuen.

- **Ze inpresio egin zizun lehenengo aldiz Atxabaltak?**

- Hura dena laua da eta hona etorri eta dena mendiz inguratuta ikustek inpresionatu ninduen gehien. Aitak konatatu zigun aurretik hau zelakoa zen eta ez zuen batere exajeratu.

- **Eta euskerak ze inpresio egin zizun?**

- Betidanik gustatu zait hizkuntzak ikastea eta hona heldu nintzeanean neure aldetik bo-



rondatea jarriaz ikasi egin nuen. Kurtso batzuk ere egin nituen, baina orduan Romaldoren zapaterian nenbilen lanean eta nirekin lanean zebiltzanak izan ziren maixurik onenak, dena euskaraz esatera behartuz.

- **Zure lehenengo lagunak?**

- Hasieran denak kanpokoak ziren, baina gero etxe barrietan bizi

ginenok elkartu ginen.

- **Sentitzen duzu herriminik?**

- Oporretan joateko gustatzen zait, baina bizitzera ez nintzateke joango, nahiz eta kondizio berdineko bizitza eskaini.

- **Ze desberdintasun ikusten duzu hango herria eta Atxabaltaren artean?**

- Hemengo jendea-

rekin hobeto konpontzen naiz, hangoak inbidia gehiagorekin bizi dira. Ohituren artean ere desberdintasuna dago: han ez da txikiteorik egiten, lan ordu fijoarik ez dutelako hemen bezala. Baina jai politak egiten dituzte eta hemengo segalariek bezala han ere antzeko frogak egiten dute: harria lantzeareana denborra jakin batean.

- **Ze desberdintasun dago zuk ezagututako Atxabalta eta oraingoaren artean?**


- Oraingoak hiri baten antza dauka. Lehen ez zebilen kotxerik, baina astoek betetzen zuten kale guztia.

- **Badaukazu anekdotarik?**

- Zapaterian erreka-dista lanetan nengoan. Behin gurdia asko kargatu nuen eta Pagaldaieneko aldatza oso astuna egin zitzaidan eta gurdia atzeruntz joaten hasi zen. Azkenean inguruan zebiltzan batzuk lagundu zidaten.

- **Zeure burua Atxabaltartzat daukazu?**

- Bai, guztiz Atxabaltara sentitzen naiz.



Xabier Lazpiur

• **Noiz hasi zinen ziklismoan?**

• 15 urterekin, 7 urte daroat ziklismo munduan.

• **Ze arrazoirengatik hasi zinen?**

• Beti gustatu izan zait bizikletan ibiltzea, txikitan asko ibiltzen nintzen eta 15 urterekin pentsatu nuen karreretan sartzea. Orduan Dorletako Ama Txirriindulari Eskolarekin hasi nintzen domeketan karrerak korritzen.

• **Zer moduz zabilta Baneston?**

• Nahiko zorte txarra izan dut orain arte. Osasun aldetik ere arazo izan ditut.

Bi urtetan oso gutxi korritu dut, azkeneko urte hone-tan uztaile arte korritu nuen, baina gero lesionatu egin nintzen eta ordutik hona ez dut korritu. Bi urte hauetan buelta txikiak korritu ditut, baina ez ditut tenporada osoak segidan egin, beti moztu eta berriro hasi egin behar, lesioak zirela eta.

• **Osasun aldetik ze arazo izan dituzu?**

• 3 edo 4 bider lesio-tuta egon naiz, giharretako arazoak zirela eta. Aurten-go urte hasieran anemia-rekin edo nahiko debil egon naiz. Orain erreku-peratuaz

noa, baina oraindik guztiz ez.

• **Ze asmo daukazu datorren denboraldi-rako?**

• Hau da azkeneko urtea Banestorekin eta orduan neure aldetik dena eman beharko dut, bestela ez didate kontratua barriztuko eta kalera joango naiz. Datorren tenporadan ez dakit ziur zeintzu karrera korrituko ditudan, baina osasunak laguntzen badit Buelta España, Giroa edo Tourra korrituko dut.

• **Ze asmo duzu gerorako?**

• Oraingo azkeneko urtea bakarrik daukat buruan. Tenporada ona ez badut egiten ez didate barriztuko kontratua eta horrela ezingo dut ezer egin.

• **Zenbat ordu entrenatzen duzu?**

• Astean 700 edo 800 km egiten ditut, eguneko 100 bat. Buelta luzeetarako tenporada hasieran pre-paratzen gara, normalean karrera txikiak korrituz. Karrera horreetatik aparte deskantsatu egin behar dugu, bestela larregi da.

• **Guadalajarako Entrepeñas urtegian egin-dako Estatuko Uretako Eski Txapelketan, infantil mailan, Camila Jauregik urrezko domina jaso zuen. Zorionak Camila eta jarraitu horrela.**

• **Datorren domekan, urriaren 18an Gipuzkoako itzulia izango da Murruxiko Mendi Elkartearekin. Itzuli hau Deba eta Puerto Urkarreri bitartean izango da. Urte-eragoizko 8etan izango da Partenoitik eta buelta arratsalderako.**

KIXKOR
TABERNA

Mitarte kalea, 3
Tfnoa: 79 65 25

ARBULO
URDAITEGIA

Tfnoa: 79 02 24



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte Kalea z/g
Tfnoa: 79 85 57



Gaur egungo kirolarien, eta batez ere futbolisten, eskaerak, exijentziak eta bizimodua ikusita, jende asko harritu egiten da, eta hauetako gehienek, berehala egiten du horrelako "revival" bat euren gazte denborako irudiak freskatzu:

Orduan bai futbolistak!

Lehen bai afiziua!

Zer esanik ez, denbora aldatuz doala eta horrekin batera, gurgilean jiraka gabiltzanok.

Lehen, Atxabaltan, domeka arratsaldeko bezperak entzun ondoren, futbola zen diberti-

mentu nagusia eta ia bakarra. Atxabaltan, Kiroel Elkartea U.D.A. 1946. urtean sortuzen eta bere lehen futbol zelaia Bedarretan izan zuen, orain Tubo Fabrika dagoen tokian. Futbo zelai hori egiten eta eraikitzen herri osoak parte hartu zuen. Lehen bai afiziua!

Urte batzuk beranduago 1950eko ekainak 26an, San Juan hirugarrena, U.D.A.-ko atezain zen Joxe Etxagibeli omenaldia egin zioten, Ameriketara zihoaneta. Egun horretako argazkia da honako hau. Zelai barruan: Joxe Etxagibel (UDA-ko atezaina), Balzategi (J.D.Mondragon-eko kapitaina), eta biekin batera UDA-ren sortzailea eta presidentea, Juan Luis Izagirre. Publikoan ezkerretik hasita eta eserita daudenak: joxe Lizarralde, Anita Bengoa, Mila Urreta, Mari Tere Antxia, Asun Antxia (zutik), Duni Zuazabeitia, Emili Ugarte (zutik), (X), Pepe Urtubi (zutik) eta atzekaldean Blanka Agirre.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Nor da mikrofonoaz dagoen andra?



(Aurreko zenbakiko erantzuna: Arkarazo)

Aurreko lehiaketaren irabazlea JONE OLALDE izan da. Zorionak!

Erantzuna:

• Izen-abizenak:

• Helbidea:

• Tfnoa:

AMANTALAZ



Orãingoan sukaldaria: Maria Angeles Arrese.

Platano-budina

Lau lagunentzako osagaiak:

Platano bi

Lau arraultze

Litro erdi esne

100 gr. esne trinko (kondentsatua)

3 goilarakada azukre

kopa erdi jerez siku

Zelan egin:

Irabiagailuan (batidoran) zatituta dauden platanoak, esne kondentsatua eta txurrustada bat esne freskoa nahastu. Luzaroan utzi barik, arraultzeak eta azukrea gehitu, eta berriz ere eragin. Gero falta den esnea eta jerez siku bota, ondo eraginez. Nahasketa hori budinontzi batean ipini eta labean egosi (200 gradutan) maribainuan, gutxi gora behera ordu erdiz.

Behin hotzitu eta gero ontzi borobil batera ataraten da. Gura izanez gero, platano freskoez, txokolate beroaz eta esnegain jasoaz lagundu ahal da.

POESIA

Gora ta gora munduaren azkenera

Mendian goraka
munduko gailurrera
igotzeko ahalmena
izan dezuena.
Poliki, poliki
aurrez jarririk balorea
igo duzue
askorentat utopia
hutsa den aldapea.
Izerdia, hotza, izotza
ta beldurra
izan dituzue lagun
baina hauek alde batera
utzita, lortu
duzue igotzea.
zorianak bioi
ta laister
izan dadila bueltea.
Atxabaltar guztiok
bait gaude zain
zuek noiz etorriko etxera.

Eider Otxoa

KOMIKIA



10

ZAPATUA

- Urriaren 10, 11 eta 12an, Zaraia Mendi Taldeak: **irteera berezia**.
- Urriaren 10, 11 eta 12an, Murrukixo Mendi Elkartearekin, **akanpada**.
- Gaueko 10etan, Zaraia zineman: "EL REY PESCADOR" **filmea**.

Futbol partidua:
U.D.A-C.D Vasconia.

- Zaraia zineman arratsaldean, "EL REY PESCADOR" **filmea**.
- **Zikloturisten irteera:** Atxabalta-Arlaban-Urbina-Gamarra-Gopegui-Villarreal-Atxabalta. 72 km.
- Nafarroa Oinezera joateko **Beinkebusa** izango da. 750 pta.

filmea.

17

ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman: "ARMA LETAL 3" **filmea**.

kirolzaleekin, **Aranguren irteera**.

- Murrukixo Mendi Elkartearekin, **Gi-puzkoako itzuliaren 12. etapa:** Deba-Eibar.
- Zraia zineman: "ARMA LETAL 3" **filmea**.
- **Futbol partidua**, Preferente mailan: U.D.A-REAL UNION CLUB.

11

DOMEKA

- 1go erregionalak

12

ASTELEHENA

- Zaraia zineman, arratsaldean: "VACAS"

18

DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearekin eta Eskolarteko

19

ASTELEHENA

- Taila ikastaroaren hasiera, Tailako taldeak Nafarroa kaqlean daukan lokaletan.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai, kamara eta garajeaz. Erosi nahi duenak, DisTel dendara jo dezala.
- Zaragozan pisua osatzeko neska eskaldun bat behar dugu. Tfnoa: 79 28 71

Lana

- Injenieritzako ikasle bat klaseak emateko gertu: matematika, fisika eta kimika. Tfnoa: 79 10 51.
- OHOk klase partikularrik ematen dira. Tfnoa: 79 68 18.
- Lanak makinaz pasatzen dira. Tfnoa: 79 78 75.

Salerosketak

- Garaje bat salgai Murubidem plazan, 8. zenbakia, goiko pisua. Tfnoa: 77 00 55.
- Matrimonio logela bateko altzariak salgai, nahiko berriak dira. Interesatuek deitu telefono honetara: 79 26 60.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

PUBLIZITATEA





**GARAGE
OSKAR**
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARIA TABERNA
GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIAK

**BASABE
JATETXEA**
Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE
" EDER "**
Karrozeria
mekanikoa

IBARRA Z/A
Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

**Mobiliario
ARENZA**
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
BIZKAIA,1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA



Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEETAN
Tfno: 79 16 05



**ARRIZABALAGA
ARROZTEGIA**
Sukaldeko altzairu eta armairu enpotratuak
Tfnoa: 79 49 73 ARETXABALETA

NERIAN
Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

" HERRASTI "
AKEITA ETXEA

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

Jantzi Denda
ASENSIO
Mitarte, 12 - Tnoa: 79 10 72
Aretxabaleta


**Lorenzo Gonzalez
Pinturak**

Araba ibilbidea, 24
Aretxabaleta
Tnoa: 79 65 46



LENIZ
LIBURUDENDA
**HERRIKO
PLAZA**
TFNOA:
791616

Araba Etor.,
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32



**ALEMANA
FRANTSESA
INGLESA**

AHIZKE-CI Mek bere MENDI ATEKAREN atak
zabal tzen dizkio bailara osoari .
ZABALIK: egunero 5etatik 7etara asteazkena izan ezik.
PREZIOA: 2.000 PTA. Urtean. HASIERA: urriak, 15.



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

ARETXAGAZETA aldizkaria herriari ezagutzera emateko pentsatu zen lehenengo fasea bukatutzat eman dugu.

Datorren zenbakitik aurrera banaketa sistema aldatu egingo da:

- Bazkideei etxera eroango zaizkie
- Beste ale guztiak aldizkarian publizitatea jartzen duten denda eta tabernetan aurkituko

